

PERU ABARKA
JUAN ANTONIO DE MOGUEL

PERU ABARKA

Basarte-ko Ikastetxe andiko

Euskal-irakaslea

edo

EUSKALDUN BASERRITAR BAKARTI BATEN
ETA MAISU JUAN IZENEKO BIZARGIN KALETAR
BATEN ARTEKO AUTUAK

JUAN ANTONIO DE MOGUEL

abadeak iratsiriko liburua

ZER EDO ZERTXU

Urakurgeti-izena, osoz oso ezarren, ondo etorkionik, *Peru Abarka* izan ezik ezegoan, oraintsurarte beintzat, beste libururik. Augaitik begi ona egiten iakon liburu oni, batez bere bizkaitarren artean. Aspaldion gengoan bigarrenez moldatuteko. Bilbo-ko euskalzale biri eskerra, argitaratu al izan dogu.

Eztoguz argitaratu gura izan ez berbaurea, erara ezetorrelako, ezta atzeko iztegi laburtxua bere; bada liburu guztiko berbak biurtuta dakusazanak, alper dau liburu-guenean berbatxu batzuen biurketea ikustea.

Moldaldi au egiteko Mogel-ek eskuz egiñikoaren birregite edo *kopia* eder bat begien aurrean euki dogu. Moldaldia amaituta gero, Zarauzko Ait. Frantziskorenen komentuan, bertako nagosiaren eskiñi eskergarriz, Mogel-ek egiña bera ikusteko eran egon gara.

Atzenez, gure beste adiskide baten bitartez eskuratu dogu Mogel-ek berak egiñiko lan bat “Pascal-en gogamenak euskeraz”; eta liburu oni ezarteko gengoala, bati otu iakon, berbakunea Peru-ren ezpanetakoa baizen garbia etzalako, oba izango zala bestela argitaratutea; ta aurtengo EUSKALZALE-n argitaratu doguz gogomen onek.

Tamalik asko izango zan irakurgetixu au lenagoko izkirakinde zaar txarrean barriaztutea; ta Ciceron, Dante ta Cervantes-en liburuak euren etzan izkirakindean argitaratuten direanean, ezta iñor arrituko beste onenbeste Mogel-en liburu onegaz egin dalako.

On egin daizula, irakurla maitea, liburu eder onek; eta gero baiño gero euskalzaleagotu zaizala, gero baiño gero euskaldun duin, zintzo ta osoagoa izan zaitez.

A.

LENENGO AUTUA

MAISU JUAN BIZARGIN-OSAGILLE-EUSKALDUN LANTZAKA TA PERU BASSERRITAR LANDUAREN ARTEAN

USTE USTE BARIK AURKITU ZIREAN- ARDANETXE BATEN ASTEN DA
AUTUA

PERU. Jangoikoak egun onak emon daiozala.

MAISU JUAN. Bai zuri bere, adiskidea.

P. Berori baizen Juan apaindu batek oiñak imiñi ardanetxe onetan? Toki au gizon baldres, zantar, aziera txarrekoentzat ohea da, berori langoentzat baiño. Enaz ni Jauna. Abarkak oiñetan, txapel bat buruan, gerrestua gorputzean: au da nire apainduria guztia; baiña etxagun izen onaren zalea nazan aldeti, ez oi naz sartu ardantegietan, nora ezean, premiñaz da ezin bestez baiño; etxakolako etxagun begiratu bati ondo egiten burua bat egitea gizon ospetsu, burrukari, ondatzaille, alper ta baldanakaz. Enau oraingiño iñok ikusi ardaoak igarota, gatx eginda, zabuka oiñak lokaturik, ez miiña motelduta, ez begiak lausotuta, asko legez, euren osasun, ondasun da arimen kaltean.

Bein baiño geiagotan izan naz neurre erriko Buru edo Piel, ta dardaganean erabilli daroadaz ardao-saltzailak, belute edo ondo gautu artean daukeezanean etxe barruan nekezaleak, edo ate edegiaz ardao salduten badabe debekauta dagoan orduan. Ezteust ezek gorroto ta iguin geiago emoten, nekezale edan-sarri ta ardao-zaleegiak baiño.

Zer esan nei, bada, berori emen ikusita?

Aserratuko ezpalizatki, iakin gura neuke nor dan da zek ekarri daben ona.

M.J. Adiskidea: imiñi egizu txapela buruan, ta esango deusut nor nazan. Naz, bada, oraiñago igaro dozun erriko *Barberua*, ta deitu nabee gaiso bategana. *Pagau* deuste *bisitako* erreal zidarra¹; baiña ain doilorrak izan dira, zein da ezteusten atera trago bat: alan sartu naz emen *kuartillu* bat atera ta zerbait iaatera, bada urrin egiten iat neure etxea, barurik biurtuteko.

P. Nik uste neban bene benetako andikiren bategaz berba egiten nebala. Agaiti nengoan txapela burutik kenduta, lotsa nintzala berba egiten. Iakin baneu lenengoti *Barberu* txar bat baiño etziñeala, enintzan Jaunka zugaz egongo, ezta bere buru utsean. Eta *Barberu* errukarri bat, ta iñoren gatxaz bizi dana, gaisorik ezpadabil zer-ian eztaukana, ain arro ta apaindu? Ainbeste soiñoko bitxidunez, eta ori astegun buruzurian, bidez zabilzala?

M.J. Adiskidea: egizu berba modu obean: zuk eztakizu zer dan *Barberu* izatea. Lengo *Barberu* txarrak ibilli oi zirean *desonretan* euren *opizio onraua*. Batuten zirean *tabernetan* ta nun-nai; gitxi *estudiau* ta gero ill edo bizi, *errezeta* bat egin, *botikako* asko artu eragin, *erremienta* txarrak euki, ta barriketa batzuk nekezaleai esanda, *trago* galantak ezarrita, *Mediku* jakitun batek baiño *pama* geiago euki eroen. Baiña gaur

¹ *Erreal zidarra* esaten iako makur-erdiko diruari.

Medikoen *pare* gara. Asko aurreratu da *Zirujian*. Ni egon naz Madrilgo *ospitalean* urte bian. Asko ikusi dot; ta asko dakusanak, asko ikasi daroa. Ostera bere dirautsut: zer dala uste dozu *Barberua*?

P. *Barberua barberu* ta mozoloa mozolo. Mozoloa baiño nun dago egazti edertoago iantzirik? Baiña eztau iñoz mozolo izateti urten. Soiñoako apainduak ezteutsa gaisoari osasuna emongo. *Biajon* dagiala nire erriko *Barberuak*. Bere bideko iantzia da txano gorri bat ta bere ganean txapel eskerga berrogei urte eukiko dituana. Eztabil zu legez basatzarik basatza oiñetako meeakaz, ta bai zaldi berak beste urte dituanean. Egia da nun-nai topetan dabela bazkari ta aparria. Guztiak asko gura deutsee² bere lautasunagaiti, ta iaten dau edozein gauza baserrietan. Autor deutsut, ardao-zaletxua dala, burua ta barrua berotu daroazala larregi, ta ori erea dan guztian. Baiña katuagaz zutunik zuzen egon ezin danean, topetan dituala zanak, ta eskutur sendo ta ikara bageaz ateraten deusala ederto odola gaisoari. Au zelan dan eztaikit, alan dala bai.

M.J. Orra nik diñodana: orrelango *Barberu perdulario* molde bagaak galduten deutseela pama guztia *Barberutzeari*. Eta ze *kulpa* daukee beste gure *opiziokoak* zure erriko *Barberua* baldresa, ardaora emona ta astaki bat bada? Aztuko iakon gaztetan ikasi eban apurra.

P. Eztau berak orrelangorik uste, ta ori esango bazeunskio berari, entzungo zendukez entzuteko onak. Eztozu iñoz entzun, *bakotxa bere zoroak bizi dabela*? Ak uste dau eztagoala bera legezko *Barberurik* Bizkai guztian.

Bein banaan aterako deusuz egin dituan osakintza mirariraiño io eragitekoak. Zuk barriz diñozu astaki bat izango dala, dongaro ianzten dalako, nekezaleakaz bat egiten dalako ta liburu zaarrak austu ta baztertuta eukiko ditualako. Ak esango leuskezu, soiñoako bitxidunak ta ianz-barriak eztakarrela iakituriarik ta bai liburuetarako nagitasuna. Entzun neutsan egun baten esaten nekezale askoren aurrean, ta bere euskera txaarrean: «Jaungoikoak *librau* zagizala *Barberu modako*, *Dotore txar*, apaindu ta barritsuetai. *Kortejante* batzuk dituzu: igaroten iakee *denporea* zertzuk *moda* direan *konteetan*. *Pigureria* guztiak gura ditue; Jauntxo egin gura dabee, ta andikiak baiño apainduago ibiltzen iatzuz. Ze *kuraziño* egingo dabee *Barberu delikau* oneek? Ibiliko dira gaisoen artean odolak *mantxau* eztagizan bildurrez *sangria* bat egin behar danean.»

Alan ziñoan, ta ikusi bazenduz orrelan ianzita, esango eutsuzan entzun gurako etzenduzanak. A bizi dau bere zoroak, ta zu zeureak. Eta guk nori siñiztu? Ari edo zuri?

M.J. Aren aoaz ta buruan *desberguenza* gogorak esaten deustazuz.

P. Ze berba da *desberguenzea*? Nik eztaikit. Esan gurako dozu lotsagabekeria. Egizu bada berba euskeraz. Ezteutsut nik lotsarik galdu, ez galduko bere; baiña bai egia garbiak esan; ta minduten bazara, zeurea izango da errua. Eztozu igon bear zarean baiño geiagora. *Barberuaren* izenak esan gura dau neure ustez *Bizargillea*; alan esaten deusagu guk. Zuk diñozu *apeitau* bizar egitea gaiti; esango bazendu apaindu, *apeitau* ordean, ederto esango zenduke, zerren zuek apainduten dituzun gure arpegiak uraz ta gero bizarra kenduaz. Zuk emoten deusazu *labaiñearen* izena gure arpegiak apaindu ta garbituteko *erremienteari*, ta obeto izentauko zenduke *garbitzaille* edo *apainkiñaren*

² Euskera garbian “guztiak maite dabee” esaten da. Bat gura izan leike ez bakarrik laztanez, baita gorrotoz bere. Gura izatea erdarazko querer da; maite izatea edo laztan izatea edo oneristea (zelanbait au), erderazko amar.

berbeaz. Euskaldunak bagara zetarako berba egin ez geure asaben berbakuntzan? Zetarako esan *barberua*, *labaiñea* ta onelango izen arrotz, zantar ta erbestekoai artuak?

M.J. Agiri dozu, adiskidea, baserrian azi zareala; eztozula iñoz Bizkai ta baso-arteti urten. *Barberu* edo bizargillea baiño geiago naz. Iru *titulo* emon eusteezan Madrilen, da orretarako igaro nituan iru *esamiña kruel tribunale* lotsa andiko baten. Naz, bada, *Barberua*, *Sangradorea* ta *Zirujaua*.

P. Ori baiño geiago ezpadakardazu, ni naz Arotza, Argiña, Itzaiña, Atxurlaria, Baso-azterlaria; ta errazago ikasten dira zure beargintzak nireak baiño.

M.J. Guzurra diñozu. Asto andi bat zara. Asiko baziña zu norbait *apeitetan*, arpegi guztia itxiko zeunskio odolez beteta. Artuko bazendu nire *lanzetea*, egingo zeunskio gaisoari zulo andi bat, edo bai ebagi zana. Eta zer izango litzate azur ausiak *konpondu* bear bazenduz, edo osatu *golpe* andi bat artu ta eridu dana?

P. Maisua: Eta zer egingo zenduke zuk, burdi bat banatu, burpillak lokatu ta askora bat emongo balitzakizu? Etxenduke iakingo ziri bat egiten, ta galduago largako zenduke burdi gaisotua. Asiko baziña gero burtardatza egiten, apurtuko zenduke dana, leundu-bearrean, ta ebagiko zenduke, bear bada, zeure oiña edo berna-azurra. Nok ikusi zeinkezan koltzagintzan, arriak landuten, soloko bearretan! Zu bialdu bear zendukeez basoen azterrenak ateraten, ta ebaten gero zeinbat burdi ikatz dagoan arlo edo sail andi baten.

Bizar egiten ikasten dabee mutillak laster. Badira baserritar bizar egiten iarduten dabeenak ta zuk baizen esku bigun samurrak baleukeez, ta ez laia, atxur ta askora-kirtenakaz azalduak, etzeunskioe irabaziko temarik nok obeto egin. Odola ateratea, eskutur ikara bagea ta begi zoliak dituenentzat, ezta orren gauza gatxa. Amabost, egungarreneko ikasiko leuke edozein andrak, ta zuk baizen ondo edo obeto imiñiko litukee txaplatatxuak, ta eraatsi zauritxuan lokaarriak, askatuko eztirean gizaan, iñoren esku bagea. Barrik; nok igarri zuei dakizuzan edo ez, osatuten zauriak, ezagututen bedar onak?

Zuk esan bear etzenduan, ondo azia bazengoz, esan deustazuna aurkez aurke edo neure musu garbietan; *guzurra diñodala*, *asto andi bat nazala*. Asko nekezaleri esan bazeunsa, etzenduan urtengo emendi beste *Barberu* edo zauri-osagillaren baten premiña bagea. Baiña ni naz gizon baketsua, eroapen andikoa, dongaro entzun arren, eztakidana dongarik egiten; berba baten: Jaungoikoaren bildurrekoa. Gorde zaite, bada, aurrerakoan orrelan berba egiteti.

M.J. Ezegizu bada zuk bere ain dongaro esan nire *opiziokoak* gaiti.

P. Eztiñot nik dongarorik zure beargintzea gaiti: gizon bearrak zaree zelanbait: bizarra kendu bagea ezin egon geindez; atera bear da odola gatx askotan; baiña, neure ustez, ez ainbestetan zelan ateraten dan; eta nik agindu bear baneu, odola ateratea gaiti eleukee zuek legezkoak diru berezkorik eroan bearke, edo beintzat ez odolaateraterik egin, Osagile nausi, Medikuen izena emoten iakeenak, gaisoa ikusi ta oneek agindu-artean.

M.J. Zegaiti ez?

P. Zerren bestelango gaiso ikustetan baiño aloger edo bear-sari geiago emoten baiatzu odola ateratearren, bildur izateko da dirugureak azi edo geitu eztegitan odola aterateko premiñak.

M.J. Orren arima galdukoak egiten gaituzu, zein da *sangriak* emongo ditugun diru geiago irabaztearren? Zer daki medikuak guk baiño geiago noz bear dan *sangria*?

P. Behintzat eztau itsutuko au dirugoseak odola atarateko aginduaz. Besteti; zegaitik orrenbeste arrotu zeure burua, uste izateko ak beste badakizula? Dakidana da, urte geiago iragoten dituela ikasten gaiso osatuteak dakazan zeregiñak, ta guzurra ezpada, entzun dot, euren mendean egon bear dozuela zuk ta zu langoak; ta ezin odolik atera zeinkeela euren baiduria бага. Bakotxak gorde bear dau bere tokia, ta ez agertu-eragin, soiñokoz edo aoz eztana. Eztozu iñoz entzun esakera asko esangurako au; *Maria bitxigiña, sua da ogigiña?* Eta beste oneek; *Zulo bakotxari laakoa: azeak berea kirtena, eztau gizonak izan bear urtena?* Zure aita ta asabak bizi zirean arrotasun бага; artoa beukeen, pozik iaten ebeela; abarkak zirean euren oiñetakoak, ta ortozik ibilten bere ezirean lotsatuten. Eta zelan azi zenduezan zu? Zelan ziñoazan eskolara?

M.J. Ori orrelan da. Baiña nik igon badot *opizio onrau* batera, zetako *desonrau* bear dot *erropa* zantarrakaz iantzirik?

P. Zagoz isilik. Bizkaitarra zarean aldeti eginda daukazu *idalgia*; ez baiña Bizargin, Odolateratzaile, ta zauri-osatzaillea zareaneti. Eskerrak emon egiozuz nekezaleen onegitasunari, zeintzuk esaten deutsuen *Maisu Jauna* eta *berori*. Ni naz iru etxaguntzaren jaube; burua larregi urratu бага, badaukat zer-ian da zegaz iantzi, ta eztot oraindiño Jaunaren izenik entzun neure umeen aoti bere, ta gura bere eztot. Badakizu barriz zelan iantzten nazan. Zer etedaukazu geiago? Bizi zara iñoren gatxaz, iñori miñ emonaz, iñori odola atereaz. Uts edo bete emoten dituzu osagarri izenekoak. Itera badoa, atxakia, *esesinoe* ta akiakulea aoan. «Ai lehenago dei egin baleuste! Ai nire esanak egin balira! Ai aoa gorde baleu! Orain ezer ezin nei; datorrela Abadea Eleizakoakaz.» *Or konpon* eginda, bear alper edo kaltegarri baten saria artuta, zoaz zeure etxera; lo egiten dozu atsakabe gitxigaz.

Osatuten bada zelan edo alan, «zorionean dei egin iatan: atera dot eriotzearen autzetati.» Au diñozu arkuntza guztietan, ta zoro zoro zantzuez nekezale gaisoak. Alan iazoten da nik ezagutu ditudan zure beargintzakoakaz: zure barri garbirik eztakit.

M.J. Zetarako da ni bardin imintea zuk ezagutu dituzun *Barberu* txaar ta baldresakaz? *Errebañu* baten ardi batzuk dagoz mardo ta gizenak ta besteak makal ta argaltxak. Aek ezekien *Anatomiarik*, nik bai; aek ezeben *ospitaletan* oiñik imiñi, nik egin ditut urte bi. Zetako erasoten deustazu lengoa?

P. Eta ze *anatomia* dakie, nungo Gaisotegietan egon dira andrakume azur-imintzailla, barriketa ta berba laban бага, azur lokatu eta destokituak zuzenduten dakiezanak? Zuek langoak baiño osasun-bedarren ezaguera geiago daukee onelangoren batzuk. Zer da *anatomia* dontsu ta izen ospe andiko ori? Berbea bantzugu; baiña zer dan, ez.

M.J. Zuk ezin aitu ziñaz nik esan neikezan gauza asko *Anatomia espliketako*. Gure *opiziokoak* ebaten ditue gorputz illak, ta bein banaan ikusten ditugu barruan daukazan zati andi ta txikin guztiak. Badakizu gero zer nun dagoan, nun min daben gaisoak, zek on leion.

P. O gizon gogorak! Illai bere parketan ezteutsazue?

O zikin zantarrak! Ori epaila baten zer-egiña da.

M.J. Zer da epaillea?

P. Epaillea da zuk *karnazerua* esango zeunskiona. Ikusi dozu iñoz onelangoak zer egien dabeen idi ta belarluzeak ilten dituenean? Alkandorabesoak iaso ta gaiñibet zantar bat aldean dabeela, dabilz abere illen zatiak ateraten. Baiña itxi daiogun oni gerorako ta neuk aztertuko dot zure iakituria andia ta ikusiko dogu zarean edo ezill-epaila edo *anatomiko* ona. Zer da, baiña, bizientzat, zerbait aterako bazendu illak ebateti?

M.J. Adiskidea: banoa ni emendi neure etxera. Enaz etorri ona *trago* bat ezartera baiño, ta ez zure *desberguenza* ta *burlak* entzutera.

P. Ez, arren: emoten deusut berbea ezteutsudala aitatuko atsakaba emongo deusudan gauzarik. Alan, egin daiguzan bake osoak; emoidazu esku ori, ta adiskide garealako ezaugarritzat egin daigun alborokea, ta au neure diruti.

M.J. Eztirudi orrek ondo. Zuk aterako bazendu ardaoa zeure *kostura*, urrengo baten esango zenduke *barberu* ta *zirujauak* direala doillor, prestuez, zikotz batzuk, iñoren lepotik ondo edaten dabeela. Nik *pagauko* dot ardaoa, ta *pagau* egizu zuk bazkari arin bat.

P. Aurra bada, izan dedilla alan.

M.J. Neska (dirautso Bizargiñak ardanegiko otsein bati) atera egin *azunbre* bat ardao, ta esaion ugazaba-andreari ipiñi daigula zerbait bazkaitako.

NESKATILLEAK. Enaz ni neskea, neskatilla utsa baiño. Ikasi egizu beste berbeeta bat.

M.J. Au zer da? Guztiak nire kontra? Ozta egin ditut bakeak gizon onegaz, ta esesten deust neska batek. Zer don bada neskatillea neska baiño *onradago*?

N. Zer dan? Neskatilleak urten lei noranai bere ule-*trenza* ederragaz; baiña ez neskeak. Aituko dozu onenbestegaz.

M.J. Enekian orrenbeste, ta parkatu egidazu *opendidu* bazaitut, ta atera egizu ardaoa.

P. Eztaigun edan zerbait ian artean. Neskatilla: ekarri egiguzuz topiñean ikusi ditudan arbi, aza ta okelea erretillu baten. Ezegizu ekarri saldarik, ta bai katilu bat, ardaoa gero edateko.

M.J. Adiskidea, zer da erretillua? *Platerean* ateraten dira aza ta okelea.

P. *Erretillua* da euskaldunen *Platera*. Ekarriko deuskuen erretilluak euko ditu gitxienez berrogei urte, ta iraungo dau beste ainbeste urtean. Zure bestelango *platerok* austen dira egunean bein, lurrezkoak badira; ta bestelangoak, edo urtu oi ditu suak, edo ausita saldu edo *trukau* bear izaten dira. Zurezko koillara bat ekarten badeuskue, ezta gitxi izango. Barriz alperrak dira nik etxe batzuetan ikusi ditudan oratzaille, zuek *tenedoren* izena emoten deuseezunak. Zetako emon euskuzan Jaungoikoak amar atzak edo atzamarrak? Askoz gozoago dira aza ta okela-zati eskuz ebagi, atzakaz ta ogiz batu ta iaten direanak. Ondo izango da zamau lodi bategaz estalduten badeuskue mai ardaozetakaz zikindua. Euskaldunak bagara benetan, bizi bear dogu geure aasabak erakatsi deuskuezan ekanduakaz. *Serbilleta* oraingoan ordean eztaukazu imiñi baiño aus-zapi edo marrats bat, loitu etzaiten. Ekarrri daiguela gaileta baten ura, ardaoari ezarri gura badeutsazu, bada niri urardaoak egingo leusket sabeleko miña. Nik biti bat: edo ardao utsa, edo geienean ur utsa.

M.J. Errazoia daukazu: eztira alkar ondo *konponduten* ardao ta ura. Urte asko da urik edan eztodala, saldaan ezpada.

P. Neskatiilla: ingira zaite; sabel-zorria egin iaku ta edan-gurea hainbeste berbaren ondoren. Dulabre ta ezertakoak direan otseinak, arin egin bear ditue gauza guztiak. Ekarrri eiguzu ekarriko dozuna.

(Maia txarto edo iguingarriro estaldu-ondoan iatekoaz dator neskatillea ta diño:)

N. Egon zaree luzaro barriketan milla berba alper egiten, da gero beingoan ito-bearra. Ona emen lapiko galanta ta pitxar bete ardao: ase zaiteze.

P. Adiskidea: etzazaudaz zeure izenez, ta baketu garean-ezkero, iakin gura neuke zelan deritxun.

M.J. Niri esaten deuste Don Juan Jauna, baiña zuk esaidazu naozun legez: ta zeuk ze izen dozu?

P. Niri esaten deuste Peru batzuk, besteak Periko: eztok nik, umeetati bere, jaunaren izenik entzuten, da gitxiago *Donemik*. Izen ederra dozu. Done Joan edo San Juan gauza bat dira. Donianeak esaten iakee San Juanetako egunai. Beraz zuk bere Doniane barri batzuk ekarriko dituzu, suak egin, donianbedarrak erre ta egun gozatsu bat igaro eragiteko. Nik esango deusut emendik aurrera Maisu Juan, ta zuk niri Peru, ta alan aituko dogu alkar, itxirik etxagokuzan Donok abade ta bene benetan andikiak direanai.

M.J. Ondo diñozu, ta egia esango badeusut, igarten neban etxagotala niri zuri baiño geiago ez *Jaunik* ez *Donik*. Asko da berbarik, ta ekin daiogun aurrean daukagun oni.

(Maisu Juan iaten asterakoan, dirautso Peruk.)

P. Maisua: bedeinkatu daigun maia; nire etxean ta baserrikoen artean beti ianurrean alan egin oi da, baita ian-ostean bere eskerrak emon Jaungoikoari, zeñen eskuetati iatorkuzan on guztiak.

M.J. Ni baiño obeak zaree: eztot nik mairik iñoz bedeinkatu.

P. Zer diñozu? Nun azi zara? Bedeinkatu egizu bada gaur, esan eztaiguen kristiñau gaiztoak gareala.

M.J. Baiña eztakit zelan egin ta egizu zeuk.

P. Zagoz isillik. Zer esango litzate entzungo balitz baserriar batek bedeinkatuten dabela maia, ez iakiñarren *Barberu* ain apaindu ta Madrillen urteak egin dituanak? Eskolaua zara, erabilli ta irakurri dituzu liburu asko ta zelan ikasi eztozu?

M.J. Peru: enaizu lotsatu ta *errezau* egizu zer edo zer agin-artean, ta erantzungo dot nik bere al dodana, igarriko ezteuskuen moduan nok bedeinkatuten daben maia.

P. Aurra bada: asten naz: «Aitearen da Semearen da *Espiritu Santuaren* izenean: Neure Jauna ta Jainkoa: gure itxadote guztia zugan dago, ta emoten dozu bere *denporan* iaateko bear doguna. Zeure eskua zabaldu ta guztiok bedeinkatu gagizuz. Aita gurea zeruetan zagozana...» (Arrenez)

M.J. Eztakit nik euskeraz Aita gurerik ta erantzungo dot erderaz.

P. Maisu Juan: etzara ori esaten lotsa? Noz aztu iatzuz txikitan guraso edo eskola-maisuak irakatsi eutsuzan eskaari Eleizeak artuta daukazanak ta Kristo berberak irakatsi eban Aita geurea? Ezkondua zara? Boouzu³ umerik?

M.J. Ezkondua naz, ta baditut iru ume; baiña Amak dauka *doktriñea* irakasteko ardurea. Ezta ori nire *opizioa*. Ezeban Jesu-Kristok euskerarik berba egin.

P. Ederto: ezta zure erdera mordoilloan bere; baiña nok-nai iakin bear dau Aita gurea bere Amaren sabeleti ikasi eban berbeetan. Zuri iagotzu Amari baiño geiago umeai gauza on guztiak irakastea. Baiña ezta orain berba egiteko *denporea* ta gakiozan aurrera. «Doe guztien emolea ta gure Jauna: zure eskutik guk artu ta ian bear dogun guztia, zuk bedeinkatu egizu, Jesu-Kristo zeure Semea gaiti, ta bere izenean. Aita, Seme ta *Espiritu Santuak* guztiok bedeinkatu gagizala, ta Zeruko bere maira betiko eroan gaizala. Alan izan dedilla.»

M.I. Peru, nun ikasi dituzu *erretaila* luze orreek?

P. *Erretailak* esango zenduke Eleizako *erregu* ta mai bedeinkatutekoak gaiti? Obeto egingo zenduan kendu bazendu buruko kerizgarri, zuen aoan *sombreillua* deritxona, guk kenduten dogun legez buru-txapela. Egia da zuen kapela barregarri ta asmo barrikook eztireala gauza, ez euriti, ez eguzkiti gizona gordeetako. Asko da: ian daigun.

³ *Badozu* esan gura dau

M.J. Ze okela-*plaga* da au? Zalago dago zorua bera baiño. Azook baltzak ta keetsuak iaraozak. Arbiak gogor egosi bagaak.

P. Maisua: ondo milika ta buperea zagoz. Uste zenduan ipiñiko euskuezala eperrak, oillandak, oillagorrek ta andikien maietako ianari gozoak? Okelatzat ipiñi iaku aketirenaren aragi gazitua. idi gizen ta zezin egitekoak eroaten ditugu olagizon ta aberatsen etxeetara, diru ederrak artuteko, ta gulangoen etxeetarako gordeten ditugu txaaltxu, idisko, bei zar edo aketirenak. Gose onarentzat eztago iaaki dongarik.

Aberatsen maietan etxakee ain gogoz ekiten geeli gizen ta egaztiai, zelan baserri-etxeetan arbi, aketiren, ta aza lurruna darioenai. Ogi zuria aentzat baiño, gozoago da gureztat arto-erregutada galanta. Talo ondo egiña auspean, morokilla, eznea, gaztaiñak ta sagarrak daukazan nekezalea, dontsuago da andiki guztiak baiño. Milikerien artean ezta aragi sendorik egiten. Begiratu baserri mutill ta gizon gazteai, zein mardo ta mamintsuak daukeezan matraila-alde ta zankoak. *Zimentu* onak daukazan etxea iraunkorrago da argalak daukazana baiño. Ikusi egizuz andiki askoren alabak loraz ta bitxiz beteta. Itxurgatu ta zurbilduta, gauza ez batzuk, argal, erkin, aize apur batek oeratuten diruala, oiñak zerbait ezkotu edo bustiten baiakez, estulga ito bear dabeela.

Barriz gure neskatillak, euri ta aterri, eguraldi on edo txar, ortozik edo abarka zulatuakaz dabilzanak, zein dasbardiñak besteetatik! Atxurrean, laietan, irabatuten, landara-iorraan ta beargeirik gogorrenetan, gizonen albo ibilliarren, eztaroe ain erraz estulik atera; ez osagille edo *mediku*-atzean ibilli.

Barijekuetan okelea iaateko gatx andia bear ko dabee. Iatsiko dira Meza entzutera iaiegunetan, indriska ta edurra bada bere; ta ain sendo ta indartsuak dira, zein da urun-zaku edo zorro andi bat buruan dabeela, artuko litukee besape bietan andikikume bi, bide luzean eroateko: Ezta alan? Maisu Juan, zetako zabilz bada arpegi txar, iguiña ta mukertasuna agertuten, erretilu onetan bota deuskuezan lapikokoai? Iaizu arin.

M.J. Ian bear zer edo zer, besterik eztagoanean; baiña bildur naz errebesau eztaidan, edo aize dongaz bete enadin.

P. Ian daigunean erdiraiño, emongo deutsut edaaten ardaoa.

M.J. Ezin egon neinde arteetan edan baga. Artu ditut zelan-alan azkada bi aza, aketiren onen atal bat, ta iruntsiko badot, edan bear dot. Ekartzu laster *trago* bat.

P. Eutsi, bada, neure eskuti.

M.J. Au zer da, Peru? Ardao oni ezarri deutsee ura; motela dago, indarrrik eztauka. Beselango bazkaria! Artu daiogun kontu maia *serbietan* dabillen neskatilleari. Ze izen dau?

P. Praiska deritxo: baiña orrelangorik aitatuten badozu emen, izango da atrakala ta baraila andiren bat. Neskatilleak esango deutsa ugazaba-andreari; asiko da agiraka, txilioka; ta barbarik onen esango deutsuna izango da guzurra diñozu. Ta zer dakit nik Pielari dei eginda barregarritzko gauzaren bat emen ikusi eztaigun? Maisu Juan: obe izango da isillik egotea ta ez ezer aitatutea. Gizon ssakatu ta eroapen andikoak ezteutsa

kalterik ekarriko buruari; baiña irritu, aserrakor, sutsu, ta miiñ ariñekoak euki lei gerora damukizuna.

M.J. Asko da zuk esatea, Peru; obeto dakizu oneetako barri, ta bazaut, aserratuten bagara, eskatuko deuskula *pagu* andiren bat bazkari txar onegaiti; ta neurdin ezteutsagu ura kenduko ardaoari, ta eztot uste beste zaragietako ardaoa egongo dala *puroagoa*.

Zer daantzut...? Kanteetan... Gagozan isillik zer diñoan... Peru: artu dozu gogoan koplaxua?

P. Bai.

M.J. Zelan da?

P. Ona.

Aita-semeak, edanda dagoz
Ama-alabak iokoan;
Ostera bere egongo dira
Soiñoko zaarrak kakoan.

M.J. Nor ete da *kantorea*?

P. Nik eztakit; itaunduko deutsagu neskatilleari ta esango deusku.

M.J. Praiska, nor da alango *kantore* ederra?

Praiskak. Aita-seme batzuk ioan dira sabaira, Aita katu andiaz ta semea bere bai zerbitakoan. Lo egiteko asmoz igon dabee, baiña emon deutsa agureak kanteari. Soiñulari eder bat dozu, ardaoz basa basa eginda bere.

M.J. Peru: esaidazu arren ostera *bersoa*, ta aterako ditut papera ta *tintero*a, beti aldean darabildazan legez: eskribiduko dot aztu eztakidan.

P. Entzuizu bada ondo. (Leengo neurtizak Peruk birresan da Maisu iratsi ta gero diño):

M.J. *Berso* asko irakurri ditut neure aldian erdaldunen liburuetan; baiña ez berba gitxitan gauza geiago esan gura dabenik. Ai ostera *kantauko* baleu! Ai! asi da... Gagozan isilik. Peru: artu gogoan... Kantau ditu *berso* bi: zer diño?

P. Ona zer diñoan:

Egun baten gaba eginda
Niñoian neure etxera,
Larrapastadatzar bat eginda
Io neban beeko bidera.
Iaso nenduen danau mankauta
Bizkar-azurra ausirik,
Miñaren miñaz katu guztia

Beingoan niri igarorik.

M.J. Zetan *parau* etezan Piestea? Nok osatu eban? *Berso* onek geiagoren eske dagoz. Banoa eurak *eskribietara*.

(Irasten dabezan artean, ordiak eresten diarduala entzun dantzu). Kontu gogoan artuteaz. Zer esan dau?.

P. Ona zer diñoan.

Ekarri eusten egun-sentian
Maisu Juan *Barberua*,
Gurago neban neure alboan
Euki Gaizkin *Deabrua*.

M.J. Ze *deabru*? Nungoa da agure ordi *kantore* au?

P. Nik eztakit, baiña bai zeu aitaturten zaituana, ta Deabrua baiño gaizto gogorragotzat zaukazana. Zeure errikoa da ta zeure egokiren bat. Aurra, artu egizu lumea, ta daukazun ur baltz orregaz eratsi eiguzu zapi zuri orretan esan daben laukoa besteen ondoan. Onak ta txarrak, atsakabea ta atsegiña emoten dabeenak artu bear dira aserre baga. Etxazu isilduko iazo iakon guztia bere soiñuan esan baga. Ara... badarrio. Diño bada:

Borreru arek birau nenduan
Albo bateti bestera,
Egon bear dau onek, ziñoan,
Begira gaur bazterrera.
Asi zan gero erremientak
Bere ziskuti ateraten,
Otso-biotzaz barre eginda
An egozanai esaten.
Kangrnatzar bat iaioko iako
Ondo ezpadogu *sajeetan*;
Eztira ez onlango *eridak*
Bedartxuakaz osetan.
Jaurti neutsan ostikadeaz
Ezarri neban lurrera,
Sartu eztedin Maisu Juane
Nire etxean ostera.

M.J. Badakit orain nor dan agure *kantore* hau. Da ordi pusiga etxe guztia ondatu dabena; zoorrez beterik dago: tabernarik taberna dabil. Noizean bein daroe banatuta, katuagaz doala, *golpeak* artuta. Alperrik ilgo da nigaiti: ez nauka ostera atrapaurik. Nik eztakit zelan osatu zan kantau daben *tranzean*. aragiak sendoak ditu. Ioan banakio dagoan lekura, irakatsiko deusat zelan berba egin; eztaukat aaztuta egin eustana.

P. Obeko dozu ian da bakean itxi alango ordi galtzaila bati; ezpabere, orain adorerik beso ta oiñetan euki ez arren, orrelangoak, edo bere semeak emon leikezu

makillaka galanta ta burua ausita itxi. Ara oraindiño soiñuetan da eztira alperrik igarotekoak bere laukoak.

Maisu borreru ioan zanean
Ekarri eusteen berbati
Andratxu on ta errukior bat
Auzoko erri bateti.
Azur ta zauri guzti guztiak
Zituan kontuz ikusi;
Arpegi sona baketsuagaz
Esan eustan onlan neuri.
Txomin gaisoa, ordu onean
Bota dozu *Barberua*,
Ikusi gura ezpazenduan
Lurrean bertan *inpreiñua*.
Pasma-bedarrak bearko dira
Eragozteko pasmoa,
Horma-bedarrak gozatuteko
Banatu iatzun albo.
Egun gitxian zara ikusiko
Indar galantak arturik,
Eta zure azur banatuetan
Inkaren apur bagarik.
Esan da egin, aste-barruan
Urten neban neuk etxeti
Gerri zerdenaz makilla бага
Ian-goseagaz besteti.

P. Maisua, bantzutuz diñoazanak?

M.J. Bai, Peru, ta nago ikaratuta, zelan gizon ordi batek atera leikezan alango *bersoak*, ta *kantau* ain *klaru*. Nik uste neban, eztarri guztia euki bear ebala katigatuta, ta *berso* gauzarik ezin gomutau litxakiola.

P. Alan dirudi, baiña ezta alan iazoten: ikusi ditut nik begiak lausotu, oiñak lokatu, gerria makurtu, ezpanak bisustu, txapela okertu ta berbea moteldu ta zutiñik egon ezin direan gizon katutu ta ardoaz sastuak, eztarri garbi ta laztasun bageaz soiñua ioteko. Zelan dan eztakit, bai baiña alan dala. Iñozko azkorren dagoz orretarako, ta itanduten badeutsezu Aita Gurea, uts egingo deuntsue amar bidar.

Asko da soinurik, amaitu daigun pitxar ondoko ardaoa, ta Jaungoikoari eskerrak emonda, goazen oera. Ni logura naz; eztot ez eunezko, ez miesazko izararik bear, ez artulezko burkorik. Marrageruen izara latzen artean atserengo dot goizartean. Enabee irartzartuko, ez ardi, ez imitxen zirrikak.

M.J. Agur bada, Maisua, goiz artean; gau on bat igaro egizu, ta dei egikedazu, ez oillarraren goizeko soiñuan, ta bai eguna zerbait argituta. Egun on bat alkarregaz igaro badogu, obeagoak igaroko dituzu. Eroango zaitut egun batzuetako neure etxera. An ta bideetan erakutsiko deuntsudaz gauza asko, ta esango dozu noz edo noz baserritar batek irakatsi deuntsuzala, erri barruetakoak irakatsi ezeuntsuezanak.

M.J. Eskerrik asko, Peru; zoaz, lo egizu orain da neure kontura goizean zuri dei egitea. Agur. Igaro egizu gizagaiso orrek zuk bere gau on bat.

(Transkribatzailearen Oharra: hementxe bukatzen da "Lenengo autua")